



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Alboko kargako ibilgailuen bidez etxeko hondakinak jasotzeko edukiontziz hornitzeko lizitazio iragarkia

1.- Erakunde esleitzaila.

- a) Organismoa: Debagoieneko Mankomunitatea.
- b) Espedientea bideratzen duen bulegoa: Idazkaritza Nagusia.
- c) Dokumentazioa eta informazioa lortzea.
 - 1.- Bulegoa: Debagoieneko Mankomunitateko Idazkaritza Nagusia.
 - 2.- Helbidea: Nafarroa Etorbidea, 17.
 - 3.- Herria eta posta-kodea: Arrasate-Mondragón, 20500.
 - 4.- Telefonoa: 943793399.
 - 5.- Telefaxa: 943770854.
 - 6.- Korreo elektronikoa: kontratazioa@debagoiena.net
 - 7.- Kontratatuzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.debagoiena.com
 - 8.- Dokumentuak eta informazioa lortzeko epea: 2014ko uztailaren 17a.
 - 9.- Espediente zenbakia: 2014/01 hornikuntzak.

2.- Kontratuaren xedea.

- a) Kontratu-mota: hornikuntza kontratua.
- b) Xedearen deskribapena: alboko kargako ibilgailuen bidez etxeko hondakin zatikiak jasotzeko edukiera desberdineko edukiontziz hornitzea.
- c) Lotekako zatiketa eta zenbakia: ez dago lotekako zatiketarik.
- d) Entregatzeko lekua: Debagoieneko Mankomunitatearen lurralde eremuan.
- e) Kontratuaren iraupena: bi urte. Entregatzeko epea: bi hilabete.
- f) Luzapenak: ez.
- g) CPV: 34928480-6.

3.- Tramitazioa eta prozedura.

- a) Tramitazioa: ohikoa.
- b) Prozedura: irekia.
- c) Enkante elektronikoa: ez.
- d) Esleipen irizpideak:
 - Eskaintza ekonomikoa: 50 puntu.
 - Debagoieneko Mankomunitateak erabilgarri dituen jasotzeko eta garbitzeko bitartekoetara egokitzea: 25 puntu.
 - Edukiontzien ezaugarri teknikoak eta funtzionalak: 15 puntu
 - Sarrerak kontrolatzeko sistemaren ezaugarri teknikoak eta funtzionalak: 10 puntu.

4.- Kontratuaren balioaren zenbatespena: 661.460 €, BEZ kanpo.

5.- Enkantearen oinarrizko aurrekontua:

Hornidurako unitate bakoitzaren lizitazio prezioa honako hau izango da:

- 2.000 l inguruko edukiera duen edukiontziazen unitateak zatiki organikoa jasotzeko: Zenbateko garbia: 800 € unitateko. Guztira: 968 €/unitateko.
- 2.000 l inguruko edukiera duen edukiontziazen unitateak, errefus zatikia jasotzeko: Zenbateko garbia: 800 € unitateko. Guztira: 968 €/unitateko.
- 3.000 l inguruko edukiera duen edukiontziazen unitateak ontzi arinak jasotzeko: Zenbateko garbia: 900 € unitateko. Guztira: 1.089 €/unitateko.
- 3.000 l inguruko edukiera duen edukiontziazen unitateak paper-kartoi zatikia jasotzeko: Zenbateko garbia: 900 € unitateko. Guztira: 1.089 €/unitateko.
- 2.000 l inguruko edukiera duten edukiontzien sarrerak elektronikoki kontrolatzeko unitateak: Zenbateko garbia: 160 € unitateko. Guztira: 193,60 €/unitateko.
- Sarrerak kontrolatzeko elementu osagarrien multzoa: txartela, txartel kodetzaileak eta inprimagailua: 11.000 txartel, 2 kodetzaile eta inprimagailua bat, funtzionatzeko behar duen softwarearekin: Zenbateko garbia: 8.000 €. Guztira: 9.680 €

6.- Bermeak.

- Behin behinekoa: ez da eskatzen.
- Behin betikoa: lizitazioan aurreikusitako oinarrizko aurrekontuaren % 5a.

7.- Kontratastaren berriazko betebeharrak.

Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala:

- Arrisku profesionalengatik kalte-ordainetarako 600.000 €-ko edo zenbateko handiagoko aseguruua.
- Azken hiru urteetan kontratu honen xede den horniketaren antzekoak egin izana egiaztatzea.

8.- Eskaintzak edo parte hartzeko eskariak aurkeztea.

- a) Aurkezteko epea: 2014ko uztailaren 17ra arte.
- b) Aurkezteko era: Administrazio Klausula Partikularren Agirian zehaztutakoa.

- c) Aurkezteko lekua:
- 1.- Bulegoa: Debagoieneko Mankomunitatea, Idazkaritza Nagusia.
 - 2.- Helbidea: Nafarroa Etorbidea, 17.
 - 3.- Herria eta posta kodea: Arrasate-Mondragón, 20500.
- d) Enkantegileak bere eskaintzari eutsi beharko dion epea: 3 hilabete.

9.- Eskaintzak irekitzea.

- a) Deskribapena: B gutun-azala irekitzea, "Balio-judizioa egin beharra dakarten irizpideei buruzko dokumentazioa".
- b) Erakundea: Debagoieneko Mankomunitatea. Nafarroa Etorbidea, 17.
- c) Herria: Arrasate-Mondragón, 20500.
- d) Data eta ordua: 2014ko uztailaren 23a. Goizeko 10:00etan.

10.- Iragarkien gastuak: esleipendunak ordaindu beharko ditu.

11.- "Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera" iragarkia bidali zeneko data: 2014/06/05.

Arrasate, 2014ko ekainak 16a.- Lehendakaria.